

LABURAREN

GALDAKAO

Antenak ipinteko urigintza eta ingurumen baldintzak jasoten dabezan araudia onartu dau Udalak

Komunikazio tresnak eta antenak aurrerantzean bete beharreko urigintza eta ingurumen baldintzak arautu dauz Udalak. Galdakaoko udaletxean egindako azken udalbatzarrean onartu zan araudia. Batasunak irati eta telebista antenen erabilera be arautzeko eskatzen eban zuzenketea be onartu eban Udalbatzarrek. Batasuneko bozeroale Itxiar Barrenetxearen berbetan, «era honetako gailuen instalazioaren ganean Eudelek onartutako erizpideetan sakontzen dau araudiak». Batasunak egindako zuzenketeagaz, ganera, Galdakaoko Udalak era guztietako antenak arautzeko ahalmena eukiko dau.

PORTUGALETE

Udal liburutegian ganezka dagozala salatu dau Batasunak

Portugaleteko Batasunako udal taldeak herriko liburutegian duela hamar urte eskuratutako liburuekin ganezka dagozala salatu dau. Izan be, aitutatako liburu horreek kutxatan pilatuta dagoz, eta, beraz, ez dagoz jentearen zerbitzura. Portugaleten Batasuneko zinegotzi Izarra Gisasolak adierazo dauenez, «orain dala 9 urte liburutegia barritzeko beharrak egin ziranean hainbat liburu erretiratu ziran, eta gaur egun horreetariko asko 150 kutxetan jarraitzen dabe pilatuta».

PORTUGALETE

Enplegu tailerrekoek pasabideetako hesiak kenduko ditue

Danetara 25 urtetik gorako hogeitahortuk hartuko dabe parte Portugaleteko pasabideetako hesi arkitektonikoak kenduko dituen enplegu tailerrean. Herritarren erosotasuna eta segurtasuna helburu kenduko ditue hesiok. Alkate Mikel Cabiecesek adierazo dauenez, 457.000 euro inbertituko ditu Udalak pasabideetatik hesiak kentzeko programan. Enplegu tailerrean 11 gizonen eta bederatzi emakumek hartuko dabe parte, eta urte eta erdiz iraungo dau.

SANTURTZI

6 eta 10 urte arteko 200 bat umek hartuko dabe parte Udalak antolatutako udaleku zabaletan

200 umek hartuko dabe parte urtero lez, Santurtziko Udalak garagarriaren batetik hamalaura gertatu dituen udaleku zabaletan. Udaleko Kultura zinegotzi Miriam Fradek jakin eragin dauenez, halandabe, aurtun, tokiz aldatzea erabagi dabe: Serantes eta Itxasoko Ama eskola publikoetan egingo ditue. Aslehenetik barikura arteko udaleku elebidunak izango dira. Abentura kirol ekintzak, museotara txangoak edota natur pakeetara egiteko aukerea eukiko dabe udalekuetara joaten diran sei eta hamar urte bitarteko umek. Danetara, 26.489 euroko aurrekontua eukiko dabe udalekuok, eta datorren astean erabagiko dau Udalak zein enpreseari emon.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESSAKURKEZO

AURKEZPEN EGUNA. Aste Nagusiko kartel lehiaketako epaimahaia kartel irabazlea erakusten.

Plagioa pil-pilean

ASTE NAGUSIKO KARTELAGAZ POLEMIKEA. Kartel lehiaketako epaimahaiak Jon Garin eta Aitziber Ibarbarriagaren kartela mantendu dau irabazle, nahiz eta plagio zantzuak egon

Asier Iturriagaetxebarria |

Aitziber Ibarbarriagak eta Jon Garinek egindako *Jaiak pil-pilean* izeneko kartela izango da aurtengo Aste Nagusiko jaietako irudia, nahiz eta polemikeak eta plagio zantzuek ia pribilegio hori kendu deuteson. Manu de Alba argazkilariaren hiru irudi agertzen zirala eta kartel irabazlean, epaimahaiak asteon batu zan zer egin erabagiteko. «Epaimahaiak erabagi dau Aitziber Ibarbarriaga eta Jon Garinek egindako kartela izatea lehiaketaren irabazlea. Kartel irabazlea sormen lan originala da, eta ideia egileena euren dala argi dago, baita konposizioa be», adierazo dabe.

Joan dan bagilaren 6an aurkeztu eben aurtengo Aste Nagusiko kartela. Bertan egon ziran lehiaketako epaimahaiak be: Jose Luis Sabas Kultura zinegotzia, Eduardo Portero Jai Batzordeko kidea, Jose Julian Bakedano Arte Eder Museoko zuzendariordea, Jose Martinez Burgos margolaria, Maren Iturburu diseinatzaile grafikoa eta Iñaki Astoreka konpartseroa. Irabazlea aukeratzeko orduan, kartelaren originalidadeari begiratu eutsiela esan eban aurkezpen egunean Bakedanok: «Kartelak egiteko teknologia barriak eskaintzen dituen aukerak erabiltea ondo dago, baina honek erabilten be jakin behar da». Izan be, Jon Garinek *Bizkaia*-ri adierazo

eutsonez, euren helburua zan antxinako kartelen filosofia berreskuratzea.

Halandabe, epaimahaiak goraitutako originalidadea plagioa bihurtu zan baten bat konturatu zanean *Jaiak pil-pilean* kartelean Manu de Alba argazkilariak eginiko hiru elementu egozala. «Argi dago Manu de Albaren elementuak dagozana, baina horren helburua instrumentala baino ez da», azpimarratu dau epaimahaiak.

Aste Nagusiko kartel lehiaketaren epaimahaiak Manu de Alba argazkilariari be galdetu eutsen ia ardura jakon bere irudiak agertzea kartel irabazlean, eta honek baimena emon eban, *Jaiak pil-pilean* izango da Aste Nagusiko irudia.

